



## ELKARRIZKETA

Eider Goenaga Lizaso

Ikerbasqueko ikerlaria da Reyes Calvo (Ciudad Real, Espainia, 1979), Donostiako CIC Nanogunean. Fisikaria da, eta aitortu du gizonen mundu batean lan egiten duela, hori aldatzeko lanean ari den arren. Iaz, Emakume eta Neska Zientzialarien Nazioarteko Egunaren harira, koordinatzaile aritu zen Nanoguneak Donostian antolatutako *Zientzia bada nesken kontua* jardunaldietan. Aurreko koordinazioan laguntzen ari tuko da; izan ere, lanean ari da buru-belarri gai hori zientzialariek berekin urte osoan jorratzeko. Atzo hasi ziren jardunaldiak, eta gaur amaituko dira.

**Otsailaren 11 Emakume eta Neska Zientzialarien Nazioarteko Eguna izatea erabaki zuten 2016an. Bazegoen beharrik?**

Gizartea asko aldatu den arren, zientzian oso emakume gutxi gara oraindik. Karreran eta doktoretzan parekoa da kopurua, baina, arlo profesionallean aurrera joaz neurrian, asko murrizten da kopurua. Nanogunean, adibidez, hamabi taldeburu daude, denak gizonak. Adinari erreparatuta, beste bat eta ni gara Nanoguneako emakumezko zaharrenak.

**Emakume eta neska zientzialariak aipatzen dira nazioarteko egunean. Umetan bilatu behar da emakume gutxiago izatearen arrazoa?**

Genero rola eta estereotipoak oso garrantzitsuak dira. Rol horien ondorioz, neska askok pentsatzen dute zientzia mutilen kontua dela; horregatik jarri genien jardunaldiei *Zientzia bada nesken kontua* izena. Neskek gustuko dugu zientzia, eta, gainera, gaitasun osoa dugu zientziaren arloan gauza garrantzitsuak egiteko. Ezin duzu gizartearen erdia kanpoan utzi; talentua galtzen ari zara. Iaz *Science* aldizkariak artikulu bat kaleratu zuen, eta esaten zuen umeak 5-6 urterekin hasten direla barneratzen mutilentzat direla jarduerak intelektual handia behar duten gaiak. Pertzepzio hori hautsi nahi dugu.

**Karrera hasi zenuenean esan zituzten halakorik?**

Batetik, esan behar dut gutxi eragiten didatela gizartetik iristen zaizkidan mezuek. Bestetik, gure etxean ez zegoen bereizketarik: anaiarekin jolasten nintzen, erai-kuntza jolasak eta atsegini nintzen, eta inoiz ez zidaten esan mutilen jolasak zirenik. Esango nuke, gainera, bere garairako nahiko feminista zela aitona, eta niri erakutsi



JON URBE / ARGAZKI PRESS

## «Ezin da gizartearen erdia kanpoan utzi; talentua galtzen da»

Reyes Calvo • CIC Nanoguneako zientzialaria

Zientzia arloan badira emakumeak, baina Reyes Calvo fisikariak dio gizonen mundua dela oro har. 'Zientzia bada nesken kontua' jardunaldiak antolatu ditu Nanoguneak, horri buelta eman nahian.

zidan entxufeak aldatzen eta. Anaiari halako gauzak ez zitzaizkion batere interesatzen, eta niri, aldiz, bai. Beraz, etxetik beti aldeko mezuak jaso nituen, eta horrek izango zuen eragina.

**Tokiz kanpo sentitu zara inoiz? Uzteko tentazioak izan duzu?**

Hasieran, ez. Karreran %40 ginen neskek, eta doktoretzan, antzera. Orduko hartan pentsatu nuen gure gurasoen garaiko kontua zela emakume gutxi egotea, eta hogeitau urtean egoera irauli egingo zela. Baina pasatu dira hogeitau urte, eta, aurrera egin ahala, konturatzen zara arazoak bere horretan jarraitzen duela. Eta uzteko tentazioak izan dudan? Bada, bai. Mundu hau oso lehiakorra da, eta are prentzio handiagoa sentitzen duzu emakume izateagatik. Eta, beharbada, okerrera gelditzen zait oraindik: izan ere, aurrera noan heinean, gero eta gutxiago gara.

**Zer oztopo jartzen zaizkizue eskaieran gora egiteko?**

Faktore asko daude. Haietako bat amatasunarena da, oraindik amak hartu behar izaten baitu umeen ardura ia osoa. Neska askok karrera alde batera uzten dute, pentsatzen baitute bateraezina direla. Ereduak falta zaizkiela uste dut, eta ispiluak, euren burua

**«Ageriko diskriminaziorik ez dago: ez dizute esango plaza eman ez dizutenik emakumea zarelako, baina gertatzen da»**

islatuta ikusteko. Emakume gutxi gara, eta gaudenok, beharbada, ez ditugu haien asmoak irudikatzen. Adibidez, nik ez dut umerik. Eta argi diot: seme-alabarik banu, agian ez nintzateke hemen egongo. Eredu falta hori bada oztopo. **Emakume izateak baldintzatzen du zure ibilbide profesionala?**

Zaila da hori baieztatzea; ezinezkoa da jakitea. Jada ez dago ageriko diskriminaziorik: inoiz ez dizute esango plaza eman emakume zarelako; baina gertatzen da. Halere, gizon batzuek esaten dute, neska batek plaza lortu duenean, emakume izateagatik eta kuota betetzeagatik lortu duela. *Jennifer eta John* esperimentua egin zuen 2012an Yale-eko unibertsitateak (AEBak). Zientzietako 130 irakasle ingururi bidali zizkieten curriculumak; denak

berdinak ziren, sinadura bakarrak aldatzen zen: *Jennifer* edo *John*. Plaza lortzeko garaian, *John*ek *Jennifer*rek baino balorazio hobea jaso zuen, eta hainbat puntu gorago gelditu zen.

**Inoiz gutxietsia sentitu zara?**

Ilkerketek diote gutxiago deitzen gaituztela hitzaldietara, artikulu

gutxiago publikatzen dizkigutela... Uste dut, oro har, balio txikiagoa aitortzen zaigula. Sotila izaten da, baina bai, inoiz gertatu izan zait konferentzia batean beste hizlariek ikasle gisa tratatzea. «Ez, begira, orainxe hitzaldi bat eman behar dut», esaten diezuenean, harrituta begiratzen dizute. Haien ama izateko moduko adina izan arren, gazteek ez zaituzte zientzialari gisa ikusten. Zaharra- goen kasuan, berriz, paternalismoz tratatzen zaituzte: «Hara, begira zer neska gaztea daukagun hemen, gure artean». Askotan haserretu ere ezin zara egin, eta saiatzen zara ikusarazten merezi- mendu osoz zaudela hor. Emakumeok, zientzian, beste hainbat arlotan bezala, etengabe aritu behar izaten dugu merzei dugula eta profesionalak garelako frogatzen.

**Jardunaldietan nola landuko duzue gaia?**

Umeei begira, estereotipoak hautsi nahi ditugu, batez ere. Emakumezko zientzialarien aurkikuntzen inguruko jolas bat egingo dute, eta gero jarduera praktikoko batzuk, Nanoguneako emakumeekin. Helburua da umeek ikustea zientzian badaudela neskek. Nerabeekin ere badugu beste jarduerak. Esperimendu batzuk egingo ditugu 17 urte inguruko neskekin, eta neska horiek gertutegutitik ariko dira Nanoguneako zientzialariek: galderak egin, zalantzak argitu... Karrera aurreratzeke adinean daude, eta garrantzitsua da gurekin identifikatuta sentitzea.

**Amona's Power izeneko jarduerarekin antolatuko duzue.**

Bai, 55 urtetik gorako emakumeek zuzendua dago. Askotan pentsatzen dugu adin horretan dauden emakumeek ez zaiela zientzia interesatzen, baina badute interesa; gainera, ezagutzaren transmisioan eragin dezakete. Etxean egiteko moduko esperimentuak egingo dituzte, eta gero, agian, bilobei erakutsiko dizkiete, eta haien interesa piztuko.

**Iaz emakume zientzialarientzako jarduerak antolatu zenituzten. Aurten, ez. Zergatik?**

Barnera begira, eta, oraingoan honetan, Nanogunean aritzen garen emakumeek dagokiguzen, lan- ta beste nolabait egitea erabaki genuen. Ikusi genuen gai hori urte osoan landu eta jorratu behar dela, egun jakin batean zerbait egin beharrean. Hain zuzen ere, ni horrekin ari naiz orain: ea zer egin dezakegun gure egunerokoan eragiteko, hasten ari diren emakumeek bidea errazteko...